

UMANDI IKASTOLA

IKASTETXEAREN URTEKO PLANA

07-08 ikasturtea

AURKIBIDEA

SARRERA

A.- IRAKASKUNTZA-EKINTZEN EGITARAUA ETA ANTOLAMENDUA.-

1.- Ikasturte hasierako egoeraren diagnostikoa	3
2.- Ikasturterako helburu orokorrak	3
Formakuntza-berrikuntza:	
2.1. Elkarbizitza proiektua	3
2.2. Beste proiektuak.	4
2.3. Ikastolako ospakizunak	5
2.4. Beste batzuk	5
2.5. Metodologia	
2.6. Bilera plana	6
3.- Ikastetxearen funtzionamendu orokorra	9
3.1. Irakasleen banaketa	9
3.2. Baliabideen antolamendua. Arduren banaketa eta funtzionamendua.	10
3.3. Organo bilduen kideak.	10
3.4. Ordutegiak: ikasle eta irakasleen ordutegiak, erabateko dedikazioko ordutegia.	10
3.5. Tokien banaketa.	11
3.6. Ikasleak taldekatzeko irizpideak.	11
3.7. Hezkuntza Premia Berezia, indartze neurri eta laguntzen antolamendua,	12
4.- Etapa eta zikloetako lan-egitasma eta ekintza osagarriak:	
4.1. Haur Hezkuntzako 2. zikloa.	13
4.2. LMHko lehen zikloa.	16
4.3. LMHko bigarren zikloa.	19
4.4. LMHko hirugarren zikloa.	23
4.5. Hezkuntza Berezia.	26
4.6. Gorputz Hezkuntza eta psikomotrizitatea	29
4.7. Musika	30
4.8. Ingelesa	31
4.9. Liburutegia	32
5.- Organo bilduen lan-egitasmoa: zuzendaritza taldea, Batzorde Pedagogikoa	33
6.- Irakasleriaren etengabeko prestakuntza:	
6.1. Ikastetxetik kanpoko prestakuntza ikastaro eta mintegiak.	34
7.- Eskola-elkarteari komunikazio eta informazioa emateko plangintza.	35
7.1 Maila bilerak	36
7.2 Guraso eta tutoreen arteko elkarrizketak.	36
7.3 Ikaslearen ebaluazio txostena	36
B.- ESKOLA ZERBITZUAK ETA ESKOLAZ-KANPOKO EKINTZAK.	37
2.- Eskolaz-kanpoko ekintzak.	38
3.- Guraso Elkarteko beste ekintza batzuk.	40

C.- KUDEAKETA-PROGRAMA:

Gastuen lehentasun eta banaketarako irizpideak. Aurreikuspenak.41

D.- IUP-en eta ikastetxearen funtzionamenduaren EBALUAKETA.....42

E.- OOG-en ONARTZE AGIRIA.

A.- IRAKASKUNTZA-EKINTZEN EGITARUA ETA ANTOLAMENDUA

1.- IKASTURTE HASIERAKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Ikasturte honetan 597 ikasle, 46 irakasle eta Hezkuntza Laguntzako 3 espezialista gaude ikastolan. Beste ikastetxe batzuekin banatuta 2 logopeda, hauetako batek entzumen arazoak dituzten ikasleekin lan egingo du, fisioterapeuta, eta CRI keko irakasleak ditugu. Guztira 29 talde dira eta hauetatik 11 Haur Hezkuntzakoak dira eta 18 Lehen Hezkuntzakoak. 2006-2007 ikasturtean baino gela bat gehiago.

Lehen Hezkuntzan, ikasle kopurua dela eta, 5. mailako bi gela, ikasturte honetan, 6. mailan, hiru gela izango dira, berriro ere Lurralde Ordezkaritzak horrela erabakita.

Ikasturte hasieran arazoak izan ditugu:

- Udala: Gelen garbiketari irailaren 3an ekin zioten, ondorioz irailaren 6 eta 7 arte irakasleek ezin izan zituzten gelak prestatu. Oso zaila gertatu zen gelen prestakuntza, horrexegatik irailaren 10ean ikasturtearen lehendabiziko egunean gela guztiak ez zeuden erabat prestatuak
- Plantila: Ikasturtearen lehen egunean 3 irakasle falta ziren eta 4 lan murrizketak osatu gabe zeuden. Guzti hau Hezkuntza Sailaren ardura izan da, hain zuzen ere Hezkuntza Sailak lanpostu esleipenetan egindako akatsen ondorioz gertatu dira irakasle falta hauek.

Aipatutako arazoei heldu genien irailaren 1ean eta ikasturtea hasi genuen ipinitako egunean.

Udan jantokiaren zabaltze lanak eta luzernario aldaketa burutu dira.

Oraindik falta dira:

- ikastetxe sartzeko arranparen berritzea
- eta sarrera nagusian elbarrituentzat aparkaleku bat ematea.

2.- IKASTURTERAKO HELBURU OROKORRAK

FORMAKUNTZA-BERRIKUNTZA:

2.1 ELKARBIZITZA

2.2. BESTE PROIEKTUAK

Berrikuntza Ekintza deialdian bi proiektu aurkeztu ditugu:

- Teknologia berriak: Arbel digitala: 11-12 irakaslek egingo dugu. Helburu nagusia, irakasleek formakuntza jasotzea eta ondoren geletan, ikasleekin teknika hori erabiliz lan egitea.
- Ahozkotasuna irratia bidez: 6 irakasle hartuko dute parte. Helburua, ikasleak motibatuz, ahozkotasuna eta euskararen erabilera hobetzea izango litzateke. Horretarako irratia emisioak antolatuko dira.

Bestalde, NOLEGA programa barruan, “Antzerkia eskolan” lantzeko proiektua eskatuko da. Hemen 3 irakasle parte hartuko dute.

2.3. IKASTOLAKO OSPAKIZUNAK

- Ikastolan lantzen ditugun ospakizunak bi ardatz nagusi dituzte: euskara eta euskal kultura. Euskararen erabilpena, geletatik kanpo eta beste ekintza batzuetan bultzatzea da helburuetariko bat. Horretarako ikasleen motibazioa bilatuko duten ekintza bereziak egiten dira. Euskal kulturari dagokionez, argi dago ikastolan ospatzen ditugun egunak zerikusiz zuzena dutela gure inguruan egiten denarekin. Garrantzitsua da, gure ikasleak aukera izatea hainbat ohitura ezagutzeko eta gure historia osatzen duen zati batzuetan murgiltzeko.
- Bestalde, ospakizun hauek, aukera ematen dute beste arlo batzuk lantzeko. Gaien arabera, curriculumaren atal batzuk landu ditzakegu eta zalantzarik gabe harremanak: errespetua besteek egiten dutenaren aurrean, elkarren artean laguntzeko beharra, txikien eta nagusien arteko harremana, etab...
- Azkenik, ospakizun hauek aukera ematen dute ikastetxeko ikasle, guraso eta irakasleek elkarrekin parte hartzeko eta partaide sentitzeko.

Ikastolan ondoko ospakizunak izango ditugu:

- Euskararen Astea ikastolan ospatuko dugu urtarrilaren 28tik otsailaren 1ra Ikasturte honetan inauteriak eta Denon Astea batera ospatuko dira. Aurtengo gaia **Natura Eta Baserria** izango da. Ekintza honen helburua euskararen erabilpena eta euskal kultura indartzea da. Horretarako, Berritzegunean biltzen garen ikastetxeak prestaturiko materiala izango dugu eta gure geletan erabiliko dugu.
- Olentzero, abenduaren 21an goizez. Mailaren arabera gaia modu batean edo bestean landuko da. Ikastolako ikasle eta irakasleek harrera egingo diogu Olentzerori. Ondoren Haur Hezkuntzakoekin eta LHko 1. mailakoekin bilduko da Olentzero. Lehen Hezkuntzako ikasle nagusienak aukera izango dute ekintza bereziak prestatzeko txikientzat.
- Santa Ageda otsailaren 4an. Aurten ez dugu ospatuko asteburua delako.
- Inauteriak: Goizez ospatuko dugu otsailaren 1an. Aurreko urteetan egindako balorazioak kontutan harturik gai baten inguruan landuko dira, aurten Euskeraren Asteko gaiarekin lotuko ditugu. Gurasoen laguntza eta parte hartzea eskatuko da (mozorroak, txokolatada,...)
- San Prudentzio apirilaren 25an arratsalde. Ikasleekin landu ondoren, arratsalde horretan, patioan, danborrada egingo da.
- Ikastolako jaia ekainean.

Aurreko ospakizunen zehaztasunak, Zikloetan, Batzorde Pedagogikoan eta Klaustroan egingo dira.

2.4. BESTE BATZUK

- Lehen hezkuntza amaitu ondoren ikastolatik irtetzen diren ikasleen jarraipena egiten jarraituko dugu.
- 2 urteko gelen jarraipena eta balorazioa.
- Nezapako (El Salvador) ikastetxe batekin hasitako harremanak jarraituko ditugu.
- Sahara inguruan lan egingo dugu ikasleekin.
- Jantokiko funtzionamendua ziurtatu eta hobetu.
- Eskolaz Kanpoko Ekintzak, abesbatza barne, eta ikastolako dinamika koordinatu.

2. 5. METODOLOGIA

Orain arte bezala, Batzorde Pedagogikoak, zikloetako proposamenak jaso, aztertu eta bideratuko ditu.

Denen artean baloratuko dugu adostasunik dagoen ala ez hainbat erabaki hartzeko. Beharrezkoa ikusten denean Klaustroa egingo da erabakitzeko.

Zuzendaritza taldeak gai batzuen inguruan Batzorde Pedagogikora bere hausnarketak eta proposamenak eramango ditu.

Ikasturte honetan irakasle guztiak zikloetan lan egingo dute, LHko 3 zikloetan edo HHn.

BILERA PLANA 2006-07 IKASTURTEA **IRAILA**

Ezarrirako helburuak ikasturtean zehar landuko dira.Egutegia lehenengo hiruhilabeterako:

BILERA PLANA **2007-08 IKASTURTEA** **IRAILA**

EGUNA	BATZORDE PEDAGOGIKOA	ZIKLO BILERA	KLAUSTROA	ESKOLA BATZORDEA	BESTE BATZUK
07-09-04	Irailaren planifikazioa: Hhko laguntzak, proiektuen arduradunak... Irakasle goaren ordutegiak.		Irakasleen berrien aurkezpean. Izendapenak: konseilu eskolarra, permanentek, liburutegia, proiektuak.		
07-09-05		Zikloen osaketa. Irailaren planifikazioa. Egutegiak egiteko erabilitako irizpideak.			
07-09-11	Irailaren lanaren planifikazioa. Ordutegiak egiteko irizpideen berrikuspena.Revisión de criterios horarios.				
07-09-13		Ikastetxearen urteko plana			
07-09-18	Zikloen proposamenak Elkarbizitzaren proiektuan lanean hasteko				
07-09-20		Elkarbizitza proiektuaren egindako proposamenen .			
07-09-21					Irakasle berriekin bilera.
07-09-25	DAE betetzeko informazioa. Behin betiko ordutegiak Ikasturtearen hasiera emateko planaren elaborazioa eta balorazioa.				
07-09-26		Bilera.			
07-09-28					Irakasleek zuzendaritzan utziko dute norberaren ordutegia..

BILERA PLANA**2007- 08 IKASTURTEA****1. hiruhilekoa**

EGUNA	BATZORDE PEDAGOGIKOA	ZIKLO BILERA	KLAUSTROA	ESKOLA KONTS	BESTE BATZUK
07-10-02	Bilera. Ikasturteko plana		Klaustroan Elkarbizitza Proiektuaren aurkezpena. Prebentzio serbitzuak emango duen hitzaldiari buruzko informazioa zabaldu. Planaren onarpena.		
07-10-03			Prebentzio Zerbitzua hitzaldia emango du.		
07-10-04		Bilera			
07-10-09	Bilera				
07-10-10		Bilera			
07-10-11					Arbela digitala HH
07-10-15					Arbela digitala LH
07-10-16	Bilera				
07-10-17					Elkarbizitza proiektua
07-10-18		Bilera		Ikasturtearen planaren onarpena	
07-10-19					Irratia
07-10-23	Bilera				
07-10-24		Bilera			
07-10-25					Arbela digitala HH
07-10-29					Arbela digitala LH
07-10-30	Bilera				
07-10-31					Elkarbizitza proiektua
07-11-06	Bilera				

07-11-07					Elkarbizita proiektua
07-11-08		Bilera			
07-11-09					Irratia
07-11-12					Arbela digitala LH
07-11-13	Bilera				
07-11-14		Bilera			
07-11-15					Arbela digitala HH
07-11-20	Bilera				
07-11-21					Elkarbizita proiektua
07-11-22		Bilera			
07-11-23					Irratia
07-11-27	Bilera				
07-11-27 al 07-12-14					Ebaluaketa saioak
07-11-28		Bilera			
07-11-29					Arbela digitala HH
07-12-03					Arbela digitala LH
07-12-04	Bilera				
07-12-05		Bilera			
07-12-11	Bilera				
07-12-12		Bilera			
07-12-13					Arbela digitala HH
07-12-14					Irratia
07-12-17					Arbela digitala LH
07-12-18	Bilera				
07-12-19					Elkarbizita proiektua
07-12-20					OLENTZERO

3.- IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDU OROKORRA

3.1. Ikasle eta irakasleen banaketa

GELA	TALDEA	MAILA	TUTOREA	UME KOPURUA	U.K. MAILAK	A/A
202	47	LH6. MAILA A	Kepa	18	53	10
201	48	LH6. MAILA B	Itziar J.	18		10
200	46	LH6. MAILA C	Mertxe E.	17		8
214	50	LH5. MAILA A	Mertxe S.	17	50	11
213	51	LH5. MAILA B	Jaione	17		8
212	49	LH5. MAILA C	Carlos	16		6
		LH 3. ZIKLOA		103	103	53
205	52	LH4. MAILA A	Mariasun	21	64	16
204	53	LH4. MAILA B	Esther	21		15
203	54	LH4. MAILA C	Miren	22		13
209	55	LH3. MAILA A	Karmele	20	58	13
210	56	LH3. MAILA B	Gotzone	19		16
211	57	LH3. MAILA C	Marian	19		15
		LH 2. ZIKLOA		122	122	88
207	58	LH2. MAILA A	Juan	23	69	21
206	59	LH2. MAILA B	Amaia	23		19
208	60	LH2. MAILA C	Marije	23		18
106	61	LH1. MAILA A	Marisa U.	23	68	20
117	62	LH1. MAILA B	Carmen	23		21
116	63	LH1. MAILA C	Antonia	22		20
		LH 1. ZIKLOA		137	137	119
		LEHEN HEZKUNTZA		362	362	260
113	64	HH 5 URTE A	Marimar	21	63	20
112	65	HH 5 URTE B	Virginia	21		19
111	66	HH 5 URTE C	Bea	21		19
107	67	HH 4 URTE A	Marisa A.	23	69	23
108	68	HH 4 URTE B	Maribi S.	23		23
109	69	HH 4 URTE C	Marisol	23		23
	70	HH 3 URTE A	Marisa M.	22	67	22
	71	HH 3 URTE B	Gemma	22		22
	72	HH 3 URTE C	Maria José	23		23
	73	HH 2 URTE A	Arantza	18	36	18
	74	HH 2 URTE B	Itziar E.	18		18
		HAUR HEZKUNTZA		235	235	230
		IKASTOLA		597	597	490

3.2. Baliabideen antolamendua. Arduren banaketa eta funtzionamendua.

PREMIA ARDURADUNA	Mila
LIBURUTEGIA	Mertxe eta Maribi Urraca.
FORMAKUNTZA PROIEKTUA: TUTORETZA	Miren
BERRIKUNTZA EKINTZA: IRRATIA ETA AHOZKOTASUNA/	Marisa M.
BERRIKUNTZA EKINTZA: TEKNOLOGIA BERRIAK, ARBELA DIGITALA	Marian eta Mila
EUSKARAREN ASTEA- DENON ASTEA	Yolanda
ANTZERKIA	Amaia
LAN OSASUNA	Lourdes Escudero

3.3. Organo bilduen kideak.-

- Zuzendaritza taldea.

Ikasturte honetan zuzendaritza taldean zuzendaria aldatu da, honela geratuz : Ikasketa Burua , Yolanda Soria, Idazkaria, Mila Arrizabalaga, eta Zuzendaria ,Lourdes Escudero. Kontsultorea, Pili Varela.

- Eskola Kontseilua.

Gurasoen ordezkariak (15) ondorengo hauek dira: Francisco Pichot, José Urreta, Arturo Amado, Itziar Pz. De Landazabal, Itziar Marañón, Laura Muro, Txetxi De Felipe, Peio Cernadas Beatriz Saez, Jasone Lizarralde, Miguel Pasalodos, Adolfo Platas, Edurne Barañano, Luis Berrueta, Antonio Mendoza eta María Sanz.

Irakasleen ordezkariak (10): Marian Jauregi, Carmen Arrieta, Miren Tejedor, Carlos Martín, Mariasun García de Albéniz, Antonia Montero, Mertxe Elizalde, Mariam Gamarra Mayor, Karmele Jiménez eta Gotzone López.

Zuzendaritza taldea: Mila, idazkaria, Yolanda Soria, ikasketa burua, eta Lourdes , zuzendaria. Udaletxeko ordezkaria Zuriñe Sanz.

- Klaustroa

Ikasturte honetako klaustroa 46 irakaslek osatzen dute. Hauetatik 3 irakaslek lanaldi heren bateko murrizketa dute eta batek lanaldi erdiaren murrizketa du. Hezkuntza Bereziko 3 irakasle daude.

3.4. Ordutegiak: ikasle eta irakasleen ordutegiak. Erabateko dedikazioko ordutegia.

Irakasleen ordutegia.

Aurreko kurtsoko ordutegia mantentzen dugu .Hau da, goizez 9etatik 12:30etara eta arratsaldeaz 15etik 16:30era. Eskolaz-kanpoko ekintzena 16:30etik 17:30era izaten jarraitzen du. Guraso nahiz irakasleen aldetik, ordutegi honen aldaketaren proposamena egiteko asmoa baldin badago, Kurtso hasierako Erabakian jasota dagoen bezala, otsaila aurretik egin behar dela gogoan izan behar dugu eta bertan eskatzen diren baldintzak bete.

Irakasleen ordutegia. Erabateko dedikazio ordutegia.

Irakasleen ordutegiak, gela bakoitzak duen ordutegiaz batera, EED dokumentoan jasota geratzen dira, eta behar izanez gero, dokumentu hau kontsultatu beharra dago.

Ordutegi hauek egiterakoan hainbat faktore eta berezitasun kontuan hartu behar izan dira. Honela:

- Kurtso Hasierako Erabakian jasota agertzen den irakasleen lanegunaren 23 ordu lektiboak
- CEI-ACI eta Indartze Neurriak dagokien gelen ordutegiekin bateratzea.
- Tutoreen arteko laguntza eta Laguntza irakasleen ordutegiak, geletako ordutegiekin bat etortzea
- Lanegunaren murrizketa duten irakasleen ordutegiak eta ordutegi hau osatzen duten ordezkoea.
- Haur Hezkuntzan duten ordu banaketa errespetatzea.
- Informatika , liburutegia, Lan Osasunaren koordinatzailea, Denon asteko koordinaketa bilerak, proketuen arduradunak, materiala, etab...arduretarako dauden orduak.
- Asteazken arratsaldetan, musika irakasleak ez du klaserik izango Berritzegunek antolatzen duen musika mintegietara joan ahal izateko.
- Ziklo Koordinatzaileen orduak.
- Irakasleen artean egon daitezken desorekak.

Baldintza hauen arabera, *ordu erabilgarrien koadroa* osatu da. Bertan, kolore desberdinez, irakasleen ordu erabilgarrien sailkapena agertzen da eta ordezkapenak egiteko orduan, jarraitu beharreko lehentasunak finkatu dira.

Ohitura jarraituz, asteleheneko eskusiba ordua erabiliko da irakasle eta gurasoen arteko elkarriketak burutzeko. Aukera dago beste momentu batean egiteko gurasoekin adostu ondoren.

3.5. Tokien banaketa.

Ikasturte honetan, behin betiko espazioak kokatuta gelditu dira. Aurten hiru lerro ditugu maila guztietan, salbu 2 urteko mailetan.

3.6. Ikasleak taldekatzeko irizpideak.

- *Gelen antolaketa eta berrantolaketa*

2 eta 3 urteko haurrak geletan banatzeko orduan izan diren irizpideak hauek dira:

- Anai-arreba bikiak gela desberdinetan kokatu.
- 3 urtekoak, aurreko urtean ikastolan egon zirenen taldeak errespetatu ditugu eta kopurua bete arte berriekin osatu. Hirugarren taldea berria osatu da.
- 3 urtekoek, Haur Hezkuntzako lehen zikloa egin dutenen informazioa bildu eta kontuan izan.
- Neska eta mutilen arteko oreka.
- Jaiotze data: gela bakoitzean, hilabete desberdinetakoen artean oreka egotea.
- Alfabetikoki.

Beste alde batetik, *bigarren mailako hiru gelak* berrantolatu dira hirugarren mailan. Berrantolatze honen beharra taldeen ezaugarrietan oinarritu da eta horretarako egon diren arrazoiak eta erabili diren irizpideak hauek dira:

- Egon diren baje/alten ondorioz, bi geletako haur kopurua berdintzea.
- Hezkuntza premia berezia duten ikasle kopurua hiru gelen artean orekatzea.
- Geletako jarrerak eta ohiturak berbideratzea.
- Hiru gelen artean sortzen den harremana batzuetan ez da ona izaten: lehiak, beste gelakoekiko iritzia, ...

Berrantolatze hau egiteko erabiltzen diren irizpideak honako hauek dira:

- Geletako ikasle kopurua eta neska-mutilen arteko oreka.
- CEI eta hezkuntza premia berezia behar duten ikasle kopurua.-
- Geletako dinamikan eragina duten faktore desberdinak kontuan hartuz, egokiak direnak mantendu eta desegokiak direnak neutralizatu.

3.7. Hezkuntza Premia berezia, indartze neurriak eta laguntzen antolamendua

Zentroko proiektuan agertzen diren irizpideak kontutan izanik:

- Dauden CEIei erantzuna ematea.
- Errepikatzen gelditu diren ikasleei beharrezko laguntzak ematea.
- Ziklo bakoitzeko ikasleen beharrak kontutan izanik, curriculuma indartzeko neurriak hartzea.
- Ziklo batzuk berez dituzten zailtasunak kontutan izatea: LHko 1. maila eta HH

PTko irakasleek eta aholkulariak lan egingo dute batera eta ondorengo laguntzak eskeiniko dituzte:

1.- CNE ak dituzten umeei laguntza zuzena eman, ezarrita dituzten helburuak lortu ditzaten.

2.- Eskatuta dauden CNE berriak prestatu.

3.- Errepikatzen geratzen diren ikasleei beharrezko laguntzak eman, ahal den neurrian dagokien curriculuma jarrai dezaten.

4.- Indartze Neurriak: Mailako hezkuntza prozesua jarraitzen ez duten umeei laguntza gehigarria eman. Ordu nahikorik ez dagoelako Indartze neurriak behar dituzten ikasle guztiek ezin izango dute neurri hauek jaso.

4.1 HAUR HEZKUNTZAKO LAN EGITASMOA. KOORDINATZAILEA: VIRGINIA

<i>Helburuak</i>	<i>Antolaketa</i>	<i>Baliabideak</i>	<i>Denboralizazioa</i>	<i>Ebaluaketa</i>
2 urteko geletako egokitzaldia baloratu.	2 urteko irakasleek.		Lehenengo hiruhilabetean.	
3 urteko geletako egokitzaldia baloratu.	3 urteko irakasleek.		Lehenengo hiruhilabetean.	
Bizikidetza proiektuarekin jarraituko dugunez, tutoretza saioak sistematizatuko ditugu.	Mailaka eta zikloan.	Ipuinak, ipuin digitalak, jolasak, musika, txoko pertsonala lantzen eta arnasketak, masailak eta erlajazioa lantzen jarraituko dugu.	Kurtsoan zehar.	
Pentazitatearen pauten arabera etxe txokoa birrantolatuko dugu.	Mailaka eta zikloan.		Lehenengo hiruhilabetean prestaketa: erabakiak hartu, neska-mutilak, altzairuak, tresnak, gauzen kokapen txartelak edo argazkiak, eginkizunen kontrol orriak. Bigarren hiruhilabetean: martxan jarri.	
“Arte txokoa”-ri jarraipena eman, teknika desberdinak landu.	Mailaka eta zikloan.	Guztion esperientziak eta ihaz sortutako materiala.	Kurtsoan zehar.	

Ekintza Osagarriak Haur Hezkuntzan

<i>Ekintza</i>	<i>Helburua</i>	Antolatzailea	<i>Arduraduna</i>	<i>Hartzailea</i>	<i>Eguna</i>	<i>Lekua</i>	<i>Ebaluaketa</i>
Arriaga parkera irteera.	Parkeko zuhaitzak behatzera: udazkeneko kolorez jantzi diren, hostoak jauzi diren...	Tutoreak	Tutoreak	4 urte 5 urte	Urtaro desberdinetan	Arriaga parkea	
Muruara gaztainak hartzera.	Udazkena Unitate Didaktikarekin lotuta: naturaren behaketa, gaztaina bilketa...	Tutoreak	Tutoreak	4 urte	Urrian	Muruara	
Udalak antolatutako igeriketa ikastaroa.	Haurrak uretan ibiltzea zer den ikastea: sentsazioak eta gorputzarekiko harremana.	Tutoreak eta Udaleko begiraleak.	Tutoreak eta Udaleko begiraleak.	5 urte	Urriaren 15-etik azaroaren 13-ra.	Iparraldeko pizkina	
Antzerkia: “Bihotz-bihotzez”.	Klasetik kanpo euskera indartzea.	Paraiso Antzerki taldea	Tutoreak	4-5 urte	Abenduan.	Beñat Etxepare antzokia.	
Antzerkia:”Beltzitina”.	Umeen integrazioa lantzea.	APDEMA	Tutoreak	5 urte	Azaroaren 30.	Arriaga antzokian.	
Antzerkia: “Frederick, eta zuk zer diozu?”.	Klasetik kanpo euskera indartzea.	MARDUIX taldea.	H.H.-ko irakasleak	3-4-5 urte	Maiatzean.	Beñat Etxepare antzokia.	
“La leze”-ra txangoa.	Gaztaren prozesua ikustea.	Tutoreak.	Tutoreak.	5urte	Bigarren hiruhilabetean.	Araia.	
Artium museoa	Egungo artearekin lehenengo harremana izatea eta gai honekiko motibazioa sustatzea.	Artium museoa	Tutoreak.	5 urte	Konfirmatu gabe.	Artium museoa	
Arte ederretako museora bisitaldia.	Egungo artearekin lehenengo harremana izatea eta gai honekiko motibazioa sustatzea.	Arte ederren museoa.	Tutoreak.	4 urte: 5 urte:	Azaroaren 7-9-16. Bigarren hiruhilabetean.	Arte Ederretako museoa.	

Zinema: “Lagundu! arraina naiz” .	Ikasleak euskerazko zinearen ikusle izaten ohitzea, eta zinea ikasleen giza eta gizarte balioak bultzatzeko tresna bihurtzea.	Tinko Euskara Elkartea.	Tutoreak.	5 urte	Apirilaren 3.	Boulevard.	
Azken txangoa	Azken unitatearekin lotuta.	H.H.ko irakasleak	H.H.ko irakasleak	3-4-5 urte	Ekaina		
Ludotekara	Euskera indartzea. Auzoko beste espazio batzuk ezagutzea.	H.H.ko irakasleak	H.H.ko irakasleak	3-4-5 urte	Kurtsoan zehar	Arriagako gizarte etxeko ludoteka	
Camelot Txiki Park	Haurren harremanak sendotzea.	H.H.ko irakasleak	H.H.ko irakasleak	4urte	Maiatza-Ekaina	Camelot Txiki Park	

4.2 LH. 1. ZIKLOKO LAN EGITASMOA. KOODINATZAILEA: MARIJE

<i>Helburuak</i>	<i>Ekintzak</i>	<i>Baliabideak</i>	<i>Denboralizazioa</i>	<i>Ebaluaketa</i>
<p>TUTOREEN ARTEKO LAGUNTZAK Talde txikien bitartez ikasleei arreta zuzena eskeintzea. Ikasleen jarraipen zehatzagoa egitea. Besre gelen dinamika ezagutzea eta koordinazioa ziurtatzea.</p>	<p>1. eta 2 mailetan.</p> <p>- Libre dagoen tutoreak beste gelan sartu laguntzera.</p> <p>- Ume gutxi batzuekin lan egin eta haien beharrei laguntza eman.</p>	<p>- Gelan erabiliko den materiala bera.</p>	<p>Irakasle bakoitzak bere denbora librea eskeiniko die bere maila edo zikloko kideei.</p>	<p>Kurtso hamaieran</p>
<p>LAGUNTZAK BESTELAKO - Tutoreen arteko laguntzak dituzten helburu berdinak.</p>	<p>- Ekintzak ere berdinak izango lirateke. -Irakurketa-idazketa landu.</p>	<p>Gelako materiala bera. Irakasleak: - 1.A Carlos - 1.B Itziar Juldain - 1.C Mertxe - 2.A M^a Asun - 2 B Ester - 2 C Karmele</p>	<p>-1go mailan astean 45 minutuko 3 saio. -2. mailan astean 45 minutuko 2 saio</p>	<p>Kurtso amaieran</p>

EKINTZA OSAGARRIAK. LH. 1. ZIKLOA

Ekintza	Helburua	Antolatzailea	Arduraduna	Hartzailea	Eguna	Lekua	Ebaluaketa
ANTZERKIA Ohe hegalaria	Ikastolatik kanpo euskara indartzea. Beharrezkoak diren jarrerak lantzea.	Paraiso	Tutoreak	1.eta 2.mailak	Azaroak 28	<i>Beñat Etxepare</i>	
ANTZERKIA Batuta	Ikastolatik kanpo euskara indartzea. Beharrezkoak diren jarrerak lantzea.	Paraiso	Tutoreak	1.eta 2.mailak	Maiatzak 15	Beñat Etxepare	
Antzerkia ikasleekin	Ahozkeria eta gorputz adierazpena lantzea.	Nolega	Tutorea	2.maila B	Zehaztu gabe	Ikastolako aretoan.	
TAILERRAK Baserri eskola.	Baserria eta euskaldun giroa bizitzeko aukera izatea. Eztia, ogia eta gazta prozesuaren azalpena entzutea eta ondoren arlo praktikoa gauzatzea.	Tutoreak	Tutoreak	1.eta 2. mailak	Zehaztu gabe	<u>Urretxu.</u>	
KONTSUMO TAILERRAK Paperaren birziklapena	- Egunero sortzen dugun zaborraz eta honek dakarren arazoaz ohartzea.	-Kontsumo tailerrekoak	Begiraleak 1. eta 2. mailako tutoreak.	1. eta 2. mailak.		<u>Ikastolan</u>	

<p>Elikagaien ekoizpena: ogia</p> <p>Supermerkatua eta erosketak.</p>	<p>- Birziklatzearen beharraz jabetzea.</p> <p>- Birziklatzeak dakartzan hobekuntzak aintzat hartu eta prozesuak ezagutzea.</p> <p>- Elikagaien jatorria eta prozesua ezagutzea.</p>						
<p>ENTZUNALDIAK</p> <p>-Ertzaintzako Banda</p> <p>-Umeen abesbatza</p> <p>-Folklore Eskola</p>	<p>Musika zuzenean entzutea.</p> <p>Abesbatza bat zuzenean ikus eta entzutea.</p> <p>Gure folkloreko instrumentuak ikus eta entzutea.</p>	<p>IME</p> <p>IME</p> <p>IME</p>	<p>Turoreak</p>	<p>1.eta 2. mailak</p> <p>1.maila</p> <p>2.maila</p>	<p>Konfirmatu gabe</p>	<p><u>Lakuako Gizarte etxea</u></p>	
<p>IPUIN KONTALARIA</p>	<p>- Ipuinak entzunez gozatzea.</p> <p>- Entzundakoa bereizteko gai izan, gogoratu, erlazioez jabetu.</p> <p>- Garrantzitsuena identifikatu.</p> <p>- Ipuina berkontatu.</p> <p>- Hizkuntzaz kanpoko elementuak antzematea.</p>	<p>Gizarte etxean.</p> <p>Ipuin kontalaria</p>	<p>Ipuin kontalaria eta tutoreak.</p>	<p>1. eta 2. mailak.</p>	<p>Konfirmatu gabe.</p>		<p>Kurtsoan zehar, martxoan eta ikasturte amaieran.</p>

4.3 LH 2. ZIKLOKO LAN EGITASMOAK. KOORDINATZAILEA MIREN 2007 – 2008

Helburuak	Ekintzak	Baliabideak	Denboralizazioa	Ebaluaketa
<p>1.- Informatika baliabidea erabili arloetako edukiak lantzeko, batez ere: Matematika (kalkulo, erlojua, euroa ...), Euskara (aditzak ...) eta testu arrunten lanketa.</p>	<p>-Ikasleak tresnekin eta programekin arituko dira.</p> <p>-Irakasleek, ahal den neurrian, materiala aztertzen, zerrendatzen eta egokitzen jarraituko dute</p>	<p>-Tutoreak, Informatikako arduradunak.</p>	<p>- Gutxienez astean saio bat.</p>	<p>-Etengabeko ebaluaketa egingo da.</p>
<p>2.- Zailtasunak dituzten ikasleei eta errepikatzaileei, laguntza eskeini.</p>	<p>- 3.maila : . Idatz-irakurketa lantzeko erabiliko da irakasleen artean emango den laguntza. 2 saio astean gela bakoitzean.</p> <p>-4. maila: -3 saio astean gela bakoitzean. Horietako bat matematika lantzeko erabiliko da eta beste biak idatz-irakurketa lantzeko.</p>	<p>Laguntzako irakasleak</p>	<p>3.mailan Astean bi saio gela bakoitzean.</p> <p>4. mailan: Astean hiru saio gela bakoitzean.</p>	<p>- Ebaluaketa jarraia eta hiruhilabeteen amaieran balorapena.</p>
<p>3. Ikastolan tutoritza plana aurrera eramango denez, gelan ahal den neurrian ikasleekin praktirara eraman</p>	<p>-Egokiak ikusten ditugun materialak tutoritza saioetan landu.</p>	<p>Tutoretza saioetan prestatutako materialak eta ekintzak.</p>	<p>Astean saio bat talde bakoitzean</p>	<p>Etengabeko ebaluaketa</p>
<p>4. - Ahozkotasuna landu.</p>	<p>4..mailako 2 geletan antzerki bat prestatu eta antzeztu.</p>	<p>-Antzerkiko gidoia prestatu, antzezteko behar den materiala</p>	<p>- Aste Santua baino lehen</p>	<p>-Emanaldi bakoitzaren ondoren eta ikasturte bukaeran.</p>

EKINTZA OSAGARRIAK LMHKO BIGARREN ZIKLOAN MIREN 2007-2008

Ekintza	Helburua	Antolatzailea	Arduraduna	Hartzailea	Eguna	Lekua	Ebaluaketa
<p>1.- Musika entzunaldiak: 3. mailan: Ertzantza banda, Kontserbatoriko ikasleak dantza saio bat. Folklore eskolako irakasleek 2 dantza erakutsiko diete.</p> <p>4. mailan: Ertzantza banda, Eskolania. Folklore eskolako irakasleek 2 dantza erakutsiko diete.</p>	<p>3. mailan: - Soinuen parametroak ezagutzea. - Soka instrumentuak ezagutzea. - Dantza eskolan egiten den lana ezagutzea.</p> <p>4. mailan. - Haize eta perkusio instrumentuak ezagutzea. - Eskolania bat zer den ikustea. - Euskal dantza batzuk ezagutzea, baloratzea eta gozatzea.</p>	Udaleko Hezkuntza Sailak.	Tutoreak	<p>3. mailako bi taldeak</p> <p>4. mailako bi taldeak</p>	<p>3.maila: Dantza Eskola, azaroaren 7an, eta otsailaren 6an Beste datak finkatu gabe daude.</p> <p>4. maila: Folklore Eskola, bi talde urtarrilaren 30ean eta talde bat otsailaren 6an. Beste datak finkatu gabe daude.</p>	Iparralden Musika Eskolan Hegoalden Lakuako GEn Ikastolan	
<p>2.- Antzerkia euskeraz; 3. mailan: « Zirko iluna» 4.mailan : « Frida haurtxoa»</p>	<p>- Antzerkia ezagutzea eta berarekin gozatzea. - Umeentzat euskaraz oso ohizko ez den ekitaldi kultural batetara hurbiltzea.</p>	Paraiso Antzerki Taldea eta Gasteizko Udalak	Tutoreak	3. eta 4. mailako ikasleak.	<p>3.maila: azaroaren 21ean</p> <p>4.mailan: martoxaren 11an</p>	Beñat Etxeparen	

<p>3.- 4.maila: “Armentiako parkean ibilbidea”</p>	<p>Bertako animaliak eta landaredia ezagutzea.</p>	<p>Gasteizko Udalak</p>	<p>Tutoreak</p>	<p>4. mailako ikasleak</p>	<p>Finkatu gabe</p>	<p>Armentia</p>	
<p>4.- “Kontsumo tailer mugikorak” 3. mailan: “ Ontziak eta bere berrerabilera” “Ura: konsumo eta aurreztea” 4. mailan: “Paperen birziklapena” “Lehengaien eraldaketa”</p>	<p>- Ontziak neurriz erosteak, berrerabiltzeak eta birziklazeak dituzten abantaiak ulertzea. -Uraren zikloa eta ur-baliabide erabilgarriak ezagutzea, beraien erabilera iraunkorraren beharraz kontzientziatuz. - Papera birziklatzeak duen garrantziaz jabetzea. -Manufakturatutako produktuak sortzeko ematen diren urratsak egiaztatzeko aukera izatea, gastu ekonomikoz gain, ekologikoa ere kontuan hartuz.</p>	<p>Eusko Jaurlaritzak</p>	<p>3. eta 4. mailako tutoreak</p>	<p>3. eta 4. maila-ko ikasleak</p>	<p>Finkatu gabe</p>	<p>Ikastolan bertan</p>	

5.- 4. maila: Arte ederretako museoa.	Museo bat ezagutu.	Foru Aldundiak.	4. mailako tutoreak	4. mailako ikasleak.	Apirilak 2, 9 eta 16an	Museoan	
6.- 3. eta 4. mailan “Arraina “	Arraina gure elikagaietan duen garrantziaz ohartaraztea Arrainez egindako plater desberdinak prestatu eta dastatu.	Nekazaritza Ministerioa	Tutoreak	3. eta 4. mailako ikasleak	Urriaren 9an	Ikastolan	Ekintza burutu ondoren.
7.- 3. eta 4. mailan: Antzerki Forum	Antzerkien bidez, indarkeria eta jarrera arrazistak prebenzioa.	Bake taldea.	Tutoreak	3. eta 4. mailako ikasleak	Finkatu gabe.	Arantzazun	Ekintza burutu ondoren
8.- Kurtso bukaeran egingo den irteera. 3. eta 4. mailak “Areatza”	Umeak ongi pasatzea, naturarekin gozatzea eta haien arteko harremanak sendotzea.	Bizkaiko Foru Aldundia	Tutoreak	3. eta 4. mailako ikasleak.	3. maila: ekainak 6 4.mailan: ekainak 19	Areatza	

4.4 LH. 3. ZIKLOKO LAN EGITASMOAK. KOODINATZAILEA: KEPA S.

Helburuak	Ekintzak	Baliabideak	Denboralizazioa	Ebaluazioa
